

Irakur itzazu bi potret horiek.



Pottoka

Pottoka Euskal Herriko berezko zaldia da. Biziki arraza zaharra da eta Historiaurreko pareta-pinturetan agertzen da. Pottokak zaldi ttipiak dira, 1,10 metro eta 1,30 metro arteko goratasunekoak, larrua beltza edo gaztaina ilun kolorekoa dute, eta zangoak laburrak baina azkarrak. Pottokak biziki indartsuak, sendoak eta otzanak (edo mantsoak) dira.

Hastapenean, pottokak aske bizi ziren larreetan, taldean elkaturik. Jendeak ehizatzen zituen elikagai gisa baliatzeko, baina gero etxekotu zituen eta laneko erabili.

Rigoberta Menchù

Rigoberta Menchù Guatemalan sortu zen, eta Kitxe-maia etniakoa da. Ttipitik nekezia handiak izan zituen bizitzeko. Egiatzko miseria eta lanjer handiak bizi izan zituen. Bere familiak eta herritarrek pairatzen zituzten bidegabekeriak jasan zituen hark ere.

Halere, emazte maitagarria da eta irria sortzen zaio beti ezpainetan.

Itxuraz, mozkotea edo trapala da (ttipia eta azkarra) eta bere herriko emazteen gisa beztitzen da: kolore biziko soinekoz eta buru-estalkiz.

Joiak, lepokoak eta petentak ezartzen ditu bere bisaia goxoaren apaintzeko. Ile beltz luzeak txirikordatzen ditu treza luze batean.

Izariz ttipia izanik ere, jende guzientzat mundu hobe a lortzeko lanean gogor ari den emazte handia da Rigoberta Menchù.



a-Noren deskribapen edo potretak dira?

b-Zer aipatzen da bakoitzari buruz? Deskribapen horien elementuak sailka itzazu:

datuak	itxura	izaera	bizimodua

Potreta **pertsona** edo **animalia** baten deskribatzeko erabiltzen da.

ITXURA deskribatzeko hiztegia:

Burua: polit, eder, itsusi-itsusi, afrus, lazgarri, markets, iletsu, kasko-pelatu, burusoil, kaskamotz, arrasetik moztu,...

Bisaia: leun, hezurtsu, mehar, idor, gazte, zimur,..borobil, obal (arroltzekara), karratu, luze... gozo, fin, gisako, lasai, lanõ, jabal, ireki,...desatsegin, txar, okaztagarri, ilun, hits, goibel...

Bisaiaren kolorea: zuri, beltzaran,arrosa koloreko, zuhail, hits...

Aurpegiera: alai, triste, goibel, hotz, irritsu...

Ileak: gaztaina kolore, gorri, kizkur, hori, urre-kolore, gorrail, leun, lodi...

Kopeta: hertsu, zabal, hantu, zapal...

Begiak: bizi, pindartsu, distiratsu, sartuak, betondoak ubel, akitu, eroriak, negartsu...beltz, gris, urdin, berde,...zorrotz, gogor, larderiatsu, bortitz, sumindu, iheskari, basa,...

Sudurra: altxatu, sudur harro, sudur motz, mako, kako, arrano moko itxura, zuzen,borobil, xorrotx, motz eta zapal, zapaldu,...

Beharriak: zabal, labur, deskolatu, xorrotx, dilindan,...

Ahoa: ezpain mehe, ezpain mamitsu, irritsu, lodi...

Boza: mehe, zorrotz, sudur mintzo, erlastu, lodi, hautsi, herdoil,...

Matelak: matela sartuak, krokailduak, matela-handi, matela-biribil...

Kokotxa: borobil, luze, xorrotx...

Soingain traka: sorbalden itxura, tankera,...

Gorputza:

-handi, alimaleko, ttipi, ipotx, luze, lerdin, lirain, sendo..

-mehe, krokaildu, hezurtsu, ihar, hezur eta larru,...

-mozkote, trapala, ttipi azkar, gizen, potolo, gixen, guri,biribil, borobil, obeso, gizenegi...

-markets, konkordun, konkor, maingu, kinkili txar, makal, erikor...

Gorputz-adarrak:

-sorbaldak: zabal, largo, karratu, hertsu,...

-eskuak: leun, ezti, goxo, fin, zimur, gihartsu, zainart,...

-zangoak: gihartsu, lodi, makur, lerdin,...

-ibilmolde: graziatsu, fier, harro, panpox, apain, dotore, pinpirin, maingu, herren, kakol, trinkili-trankala,...

Izaria: handi, gora, ertain, ttipi, ñimiño, normal, gaitzeko, ikaragarritzko, sekulako, arrunt, ohiko..

Jantziak: jantzi, janzkera, arropa,uniforme, piltzar, trapu, zatar, itxura bitxiko,...

-arin, bero, eroso, nasai, zabal, largo, hertsu, hertsiegi, estuegi,...

-eder, aberats, zoragarri, lorios, miresgarri,...

-zahar, higatu, urratu, petatxatu, moda zaharreko,...

IZAERA deskribatzeko hiztegia:

Buruko gaitasunak: eskolatu, ikasi, jakintsu, zuhur, zentzuzko, buruargi,...

Gaitasun moralak: on, eskuzabal, bihotz oneko, bihoztun, bihozbera, bihotz zabal, leial, zintzo, maitagarri, atsegin, karan, gisako, goxo, plazent,...

Akatsak edo makurrak: eskolagabe, ezjakin, ezikasi, zozo, ergel, ments, xoro, tetele, ertzo, ... gaizki ikasi, jendetasunik gabeko, zeken, zikoitz, xuhur, hipokrita, itxurati, harro, harroputz, hastial, higuingarri, maltzur, gaizto, bortitz, zarpail, trakets ...

POTRETA

Izenburua (lodiz)

Bisaiaren eta gorputzaren deskribapena

Izaeraren eta gustuen deskribapena

Ingurumenaren eta bizimoldearen deskribapena

Lanbidearen deskribapena

POTRETA

Izenburua (lodiz)

1-Sarrera: pertsonaia aurkeztu (datuak: izena, sorteguna, lanbidea....)

2- Itxura: itxura orokorra, bisaia, boza, ibilera, gorputza, jantziei buruzko elementuak ematen dira.

3- Izaera: izaera, karatera, gaitasunak, kalitateak, akatsak, makurrak, adierazteko moldeak, ... ematen dira. Pertsonaiaren usaiak edo ohiturak aipatzen ahal dira ere.

4- Bizimodua: bere lanbidea, gustuak, tirriak, ... ematen dira.

5- Bukaera: **potreta** laburbiltzen duen erranaldi batez bururatzen da.

Argazki bat sartzen ahal da.